



BERRIGARA

30 zenbakia


Jardun elkartea, Bergara

1991, uztailak 19


Jesus Mari Aranzabal Tourra hiru bider



Txibiston,
azken
kontzertua



Udal Batzordeak:
Banaketa
eglin da



Submarinismoa:
Udako aukera
freskoa

VECTRA

Besteek desioak besterik topatzen
ez dituztenean zuk
errealitate finkoak
aurkitzen dituzu.



BEREHALAKO
ENTREGA

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2

Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI
GARAIrako kontzesionaria

Denda-sare Ofizialak

OPEL 
Esperientziagatik hobekia

**JANTZI ZURE ETXEA
PREZIO ONEAN**

Hemen PORTUGAL

Nire etxea jazten du, fabrikatik zuzenean.

**Bordatutako toaila
jokua**

1.990 pztatik aurrera

Harapak

200 x 140

3.800 pztatik

aurrera

Harapak

240 x 170

4.500 pztatik

aurrera

Toailak

Eskutarakoa 99 pzta.

Konketarako 299 pzta.

Dutxarako 650 pzta.

**Albornoza
amerikar kiribilduna**

1.900 pztatik aurrera

Bainu-izarak

1.050 pztatik aurrera

Edredoiak

1,35

5.913 pztatik

aurrera

Edredoiak

90

4.475 pztatik

aurrera

Helbidea:

BEINKE E. L. Mahasterreka 13

BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzaile: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkroberebizbar

Erredakzioa:

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil

Maketazioa:

Edurne Arenaza

Publizitatea eta harpidetak:

Ignazio Irigoien, Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikoo, Estepan Plazaola eta Juan
Martin Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Maripi Laskurain, Olaia Inza,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkroberebizbar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikuña

Argazki laborategia: A. Gallastegi,

B. Cantero, M. Leturia, K. Retolaza,
J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Tabares, Txomin Retolaza, Kifitu eta
Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak Josu Okina
eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta er-
tziaren erantzukizunik.



19 OSTIRALA

- **Zinea: "Misery"**, 10.30etan.
- **Kontzertuak:**
- Soraluzen, Gaztetxean
22etan: *J.A. Gereño Quartet*.
- Elorrioren, Gaztetxean 23-
etan: *Los del Rayo*.
- **Santamañako jaiak:**
- 18.30etan hankaluzek eta
buruhandiak.
- 22etan dantzaldia *Casino*
orkestarekin.
- **Antzuolako jaiak:**
- 19etan futbol partidua.
- 19.30etan Umeen tanborra-
da Bergarako banda txikia-
rekin.
- 22.30 dantzaldia *Izotz* tal-
dearekin.
- Gaueko 12etatik 3retara
Rock jaialdia: *Eskorbuto*, eta
NSD Beheko Auzoko kirol
plazan.
- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Mozos (San Pe-
dron)
Gauz: Amezua (Arrasaten)

20 LARUNBATA

- **Zinea: "Misery"** 10.30-
etan,
- **Santamañako jaiak:**
- 12etan III. argazki rallya
mutikoentzat.
- 12.30kukainak Matxiategin
- 4etan Mendiko bizikleten
saria.
- 6.30 hankaluzek eta
buruhandiak.
- Gaueko 9etan umeen tan-
borrada.
- Gaueko 11etan "Camp"
dantzaldia *Euromusic* talde-
arekin.
- **Antzuolako jaiak:**
- 16etatik 20etara argazki
erakusketa Herriko Plazan.
Gestorak antolaturik.
- 18etan Mairuaren Agertal-
dia.
- 22.30etan pelota partidua
eta dantzaldia *Gau Bela* tal-
dearekin.
- Gaueko 12.30etan Otxote
lehiaketa.
- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Puy (Barrenkalen)
Gauz: Azcoaga (Arrasaten)

21 IGANDEA

- **Zinea: "Misery"**, 5etan,
7.30etan eta 10.30etan.
- **Santamañako jaiak:**
- 9etan kalejira txistulariekin.
- 10etan Plater jaurtiketa Fa-
gorren.
- 12etan Meza Nagusia
- Arratsaldeko 7retan
umeentzako zezenak.

- **Antzuolako jaiak:**
- 9retan 2., mailako Afizio-
natuentzat txirrindulari las-
terketa.
- 11etan Meza Nagusia
- 12etan bertsolariak .
- 10etan *Egan* taldearekin
dantzaldia.
- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Puy (Barrenkalen)
Gauz: Español (Arrasaten)

22 ASTELEHENA

- **Zinea: "Misery"** 7.15etan.
- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Estella (Matxiate-
gin)
Gauz: Corcuera (Arrasaten)

23 ASTEARTEA

- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Puy (Barrenkalen)
Gauz: Amezua (Arrasaten)

24 ASTEAZKENA

- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Puy (Barrenkalen)
Gauz: Azcoaga (Arrasaten)

25 OSTEGUNA

- **Zinea Ilargitan:**
Usondon gaueko 11ketan
"Dersu Uzala" filma
- **Goardiako farmazia:**
Egunez: Mozos (San Pedron)
Gauz: Español (Arrasaten)

Sotuberi
ETXEA
Gertatutako jangaiak
eta erregimenekoak
Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83

Euskalduna
Taberna
OSINTXU

KIZKUR
Ileapaindegia
Solariuma
Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

ONENA

TINDATEGIA

BARRENKALE 29

BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



A. ZANGITU

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

Oporrak heldu dira!!

eta oporretara goaz gu ere. Datorren astean ez duzue BERRIGARA jasoko astero bezala zuen buzoietan, Irailak 6ra arte itxaron beharko duzue.

PRIMERAN PASA OPORRAK!

Oporretako

ARGAZKIAK eta POSTALAK

prestatzen joan. **OHAR BAT:** pentsatu dugu EPEA luzatzea eta horrela IRAILAK 9ra arte aukera izango duzue lehiaketa honetan parte hartzeko.

Bergarako herriari:



1.991ko uztailaren 12ko Berrigaran Victoriano Gallastegi Jaunak esandakoak direla eta, EAK zenbait puntu argitu nahi ditu adierazpen horiekin ez bait dago ados:

EAK garbi utzi nahi die Bergarako herritarrei eta bereziki bere botuemalteei herriaren onerako lan egiteko eta bere udal-programa aurrera eramateko borondate osoa duela. Bide horretatik, Victoriano Jaunarekin izandako lehen hartu-emanetan EAK garbi azaladu zion batzordeetan parte hartzeko prest zegoela. Gure proposamenak ez du oraindik erantzunik izan.

Horrek erakusten digu Victoriano Jaunaren eskaintza tramitea betetzea eta itxura egitea baino ez zela izan.


Victoriano Jaunak izandako jokabidea alderdi honek Euskadiko biltzar nagusi eta udaletan izandakoaren hari berekoa da.

Hala ere, Bergarako EAK, udal gestioan elkarlanean jarduteko borondate osoa duela adierazi nahi du berriz ere.

Bergarako Eusko Alkartasuna

Tiira ba!

Josu Okina



Udal Batzordeen eraketa

Joan den asteazkenean eginiko ezohizko plenoan datozen lau urteetarako Udal Batzordeak nork zuzenduko dituen eta nola banatuko diren ezagutzera eman zen.

Udalerako gobernu pak-tua sinatu duten EAJ, PSOE eta EEko bederatzizinegotzieren artean banatu dira aipatu batzordeak, HB eta EAko zortzi zinegotziak kanpoan geratu direlarik. Victoriano Gallastegi alkateak bost teniente alkateen izenak ere ezagutzera eman zituen.

Lehenik eta behin Osoko Bilkuren maiztasuna erabaki

zen. Orain arte hilabetean behin egiten baziren, legealdi honetan hiru hilabetean behin egingo dira. Horrela erabaki zuten EAJ, EA, PSOE eta EEren hamabi botuek. HBk kontrako botua eman zuen, erabakia oposizioa baztertze-ko estrategia zela argudiatuz. Victoriano Gallastegik, bere aldetik, ukatu egin zuen oposizioa baztertu nahi zuenik eta herriko edozeini informazioa



emateko prest zegoela esan zuen.

Batzordeak

Asteazkenean hartutako erabakien arabera, Gobernu Taldeak sei Informazio Batzorde eratuko ditu.

Batzorde horiek itxiak izango dira, hau da, zinegotziak bakarrik parte, hartu ahal izango dute. HBk erabakia kritikatu zuen, batzordeak irekiak izatea aurreko legealdiko gauzarik positiboetarikoa izan zela adieraziz. Victoriano Gallastegik erantzun zion batzordeak itxiak izatea erabaki bada ere, funtzionamendua alda litekeela, behar ezkerro.

Gobernu Taldea

Gobernu Batzordea bost

alkateordeek eta batzorde ezberdinetako buruek osatuko dute. Gauzak horrela, HB eta EA Gobernu Batzordetik kanpo geratu dira. Jose Luis Elkorok neurri hau kritikatu egin zuen adieraziz oposizioa baztertzea besterik ez zekarrela.

HBren protesta

Ostegunean eginiko prentsurrekoan, Jose Luis Elkorok, Aitor Aginagalde eta Jose Luis Irazabal HBko zinegotzietatik, Gobernu Taldearen jokaera kritikatu zuten. Jose Luis Elkorok instituzioen demokratizazioan atzera pausoa eman dela esan zuen, "aurreko legealdian Udaleko alderdi guztiak Gobernu Batzordera gonbidatu genituelako eta orain botoemaileen %50a kanpoan uzten delako".

Batzorde buruak


- **Hazienda:** Victoriano Gallastegi (EAJ)
- **Gobernazioa eta Zerbitzuak:** Jabier Gabilondo (EAJ)
- **Hirigintza eta Ingurugiroa:** Xabier Gallastegi (EAJ)
- **Auzoak:** Karlos Arrondo (EAJ)
- **Kultura:** - Kultur taldeak, Jaiak eta Gazteria: Luis Abajo (EAJ)
- Udaleko Kultur eta Kirol Zerbitzuak: Andoni Larrañaga (EAJ)
- Hezkuntza eta Euskara: Koldo Pereira (EAJ)
- **Gizarte Ongizatea:** - Ongizatea eta Osasuna: Jabier Zendoia (PSOE)
- Enplegua eta Gizarte arazoak: Albaro Esparza (EE)

HALTZARI

Fagor altzarien
banatzailea.

Sukalderako altzariak

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57 BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

□ Olinpiadak

Larunbatean amaituko dira uztailaren 1etik jokatu izan diren II. Olinpiada Herrikoiak. Amaiera moduan zenbait final izango dira Samartzialen eta ondoren 130 bat lagunek herri bazkaria izango dute bertan.

□ Lurjausia

Harane Erreka kalean orain lau hilabete izan zen lurjau-siak berdin jarraitzen du. Auzokideek Udalaren ardu-ra falta salatzen dute, ordutik pasabiderik ez dagoelako eta euren ustetan halako kasuak Udalaren kompetentzia direlako.



Igerilariak, primeran

Primeran aritu zen Bergara Igeri Elkarteak joan den astebukaeran Ordizian jokaturako Gipuzkoako Txapelketan. Hamazazpi talde aurkeztu eta bergararrek laugarren postua lortu zuten gizonetako eta hirugarrena emakumetako, taldekako sailkapen orokorrean hirugarrenak izan zirelarik. Asteazkenetik larunbatera bitartean taldeko 11 igerilari Euskadiko Txapelketan arituko dira eta uztail eta abuztu bitartean, berriz, Iñigo Gallastegi, Gorka Gonzalez, Kepa Irizar eta Maider Igartuak Espainiako Txapelketan parte hartuko dute.



Berrigarako artikulua saritua

Jon Anduezak, orain arte Berrigarako erredaktore izan denak idatzitako artikulua batek Rikardo Arregi Saria irabazi berri du. Lehiaketa honetan prentsan argitaratutako artikulurik onenak saritzen dira, eta gure seigarren zenbakian Txomin Pinedari eskainitakoak herri aldizkariaren arloan lehen saria irabazi du. Berea ez den gerran artikuluan Txomin Golko Pertsikoan zen bitartean, bere familiak bizi izan zituen une latzak jaso ziren. Honako honekin Jon Andueza arrasatearrak bigarren aldiz irabazi du lehiaketa, aurreko edizioan Arrasate Pressen zegoela ere lehen saria jaso baitzuen. Epaimahaiak artikulua kazetelarekin tratamendu sakon eta hurbila goraiatu du, eta, era berean, lanaren estilo zaindu eta begiratua. Saria 250.000 ptza.koa zen. Zorionak Jon!

□ Tanborrada

San Martinetako Haur Tanborradan parte hartu nahi duten 5 urtetik 12 urterarte neska-mutukoek Kultur Etxera jo beharko dute. Plaza mugatuak dira eta izena emateko epea uztailaren 23an amaitzen da.

□ IMI gela

Lanbide Heziketako Institutuak lokal horren beharra zuenez, IMI gela Lanbide Eskolako bigarren pisuan duzue uztailetik aurrera. Gogoratu hilt hontan goizez bakarrik zabalduko dela bederatzietatik ordu batera.

IXLIKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6 Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

KONDE
PANADEROKUA
Burdinate 1
BERGARA

GANBARA
BERN
Berezitasunak:
Pintxoak eta
Kafea kremarekin.
Irala z/g Tfnoa: 76 55 75

ERREKI
Erretegia
Berezitasunak:
Bixigua eta txuletak.
Fraiskozuri Enparantza
Tfnoa: 76 38 51

ederTU
ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65
BERGARA



Zezenak harrapatu

Zezenak harrapatu zituen bai Zezeaga eta Etxaniz San Ferminetako Pilota Txapelketaren finalean. Bikote bergararrak galdu egin zuen igandeko finalean Errandonea eta txapelketa honetako errebelazioa izan den Eugi naparraren aurka 22 eta 8ko emaitzaz. Lehen tantuetan ondo aritu baziren ere, partidua berehala desorekatu zen bikote naparraren alde eta Etxanizek eta Zezeagak ezin izan zuten Iruñeatik txapelarekin bueltatu.

Bestalde, larunbatean Ermuan jokaturako Deba Arroako finalean, Joseba Oregik eta Aldaik ere ezin izan zuten txapela eskuratu. Partidua nahiko txarra izan zen eta azkenean Totorika eta Gallastegi erraz nagusitu zitzairen bergararrei 22 eta 7ko emaitzarekin. Ea udako partiduetan gure pilotariek suerte gehiago izaten duten...

❑ Kiroldegia

Jadanik zabalik duzue Labegarrietako Kiroldegia bertan eginiko berrikuntzen ondorioz. Bestalde, datorren denboraldiko futbito txapelketarako izena emateko epea abuztuaren 31ra arte egongo da zabalik.

❑ Bizikleta martxa


Igande honetan, Eguzkik antolaturik, Debako XIII. Bizikleta Martxa Ekolojista izango da. Itxaso, mendi eta ibaia garbien aldeko martxa honetako irteera gure herritik 10.45etan izango da. Ez ahaztu bizikleta.

❑ Kilometroak

Abuztuan Kilometroetako denda itxita izango da eta beraz udarako erosketaren bat egin nahi baduzue aprobetxatu 6retatik 8retara denda zabalik dagoela. Irai-ilean izango den Play back lehiaketarako izena emateko epea ere zabalik duzue.

❑ Bolalekua

Aspaldiko ohiturei eutsi nahian, Antzuolako Idolaz Elkarteak bolaleku berria egin du Olanan txaletaren aurrean. Gaur ostirala arratsaldeko 6retan inaguratuko dute I. go Bolajoku Txapelketarekin.



Azoka berria martxan

Hiru aste daramatzate jadanik, Santa Marina inguruan, gure herriak aspalditik behar zuen azoka berriko obretan. Ramon Garitano arkitekto bergararrak eginiko proiektuaren arabera, azoka berriak lau pisu eta 28 saltoki izango ditu eta azokaren azpikaldean ere aparkalekuak egingo dira. Aurreko legealdian Herri Batasunak eta Eusko Alkartasunak onatutako proiektu hau, EAJ kontra azaldu zelarik. Printzipioz 200 milioi pezeta inguruko presupuestoa duten obra hauek datorren urterako amaitzea espero da.

ALDASORO



Espaloian

**HASI DIRA GURE
BEHERAPENAK**

Abuztua Bergaran

Abuztuan Bergara hutsik geratzen da. Herritar gehienak kanpora alde egiten dute oporrak pasatzera. Hemen geratzen direnak, ostera, nola edo hala jaiak ahalik eta ondoen pasatzeko ahaleginak egingo dituzte. Altsasura edo Gorlara, Landako urteigira, hondartzara... egun osorako irteerak egiten dira batez ere; eta gauean, Usoako terrazan solasean jarduteko era paregabea. Jaiak nahi izanez gero, berriz, herritik irten beharra dago: Debara, Ondarroara, Getariara, Donostiara...

Gure herrian Osintxuko kofraixak ezik, abuztuan ez da jairik antolatzen. Bergarako patroia den San Rokeren omenezko jaia ez da azken urteetan ospatu. Aintzinan, jai bezperan, San Pedro parrokiatik irudia hartu eta alkatearen etxera eramaten zen, bertan gaua pasatzen zuelarik. Hurrengo egunean prozesioa egiten zen. Gaur egun, jai eguna bada ere, ez da ezer antolatzen. San Lorenzo, abuztuaren 10ean tokatzen da eta auzoko jaiak iraila hasieran egiten baziren ere urteak dira ez direla ospatzen.

Uztailaren 25ean, berriz, Santiagoak ospatzen dira Basalgo auzoan. Aurten ere, ainbat ekitaldi antolatu dira. Uztailaren 26an, ostera, Santa Anaren omenez Boluko jaiak egiten badira ere, aurten ez da ezer antolatu.

Santamaña eta Antzuolako jaiak

Santamaña eta Antzuolako jaiak direla eta gustora pasatzeko aukera ezinhobeia izango dugu astebukaera honetan. Antzuolako zein Santamañako jai batzordeek mota ezberdinetako hainbat ospakizun antolatu dituzte aurten.

Etxafleroen jaurtiketaz eta kanpaien hotsez asteazkenean eman zitzaion hasiera santamainako jaiari. Ostegunean, Udalbatza bertan zela, Herri Meza egon zen Santamainako parrokiaren Aritzeta abesbatzak, bestalde, kontzertua eskeini zuen. Ostiralean, arratsaldeko 6.30etan hanka luzeak eta buru handiak izango dira; gaueko 10etan, Usondon, zine emanaldia. Bukaeran mendiko bizikleta bat zozketatuko da. Ondoren, Kaxiano orkestararekin dantzaldia Matxiategin.

Larunbatean haurrentzat kukainak izango dira goizetik. Gaueko 9etan, Umeen tanborrada eta 11etan *Euromusic* taldeak alaituriko dantzaldia Matxiategin. Igandean azkenik, goizean goiz herriko txistularien doinuek esnatuko gaituzte. Goi-



zeco 10,30etan Bergarako Udal bandak kalejira egingo du. Eguerdiko 12etan, Herri Meza Santamainako parrokiaren ondoren Simon Arrietan salda eta txorizoa hartzeko aukera izango delarik. Jaiari amaiera emateko, arratsaldeko 7etan Santamaña inguruan umeendako zezenak iragarri dira eta bukatzeko trikitixa doinuarekin kalejira.

Antzuolan jai-giroan

Antzuolan berriz, ostegunean hasi ziren bertako jaiak Udaletxean ikurrina jarri eta Udalbatzakideek eta dantzariak dantza eskainiaz. Ostiralean gaueko 10etan *Izotz* taldeak alaituriko dantzaldia eta gauerdiko 12tan *Eskorbuto* eta *NSD* taldeek eskeiniko duten Rock

kontzertua.

Larunbat goizean atletismo probak jokatuko dira futbol zelaiko pistan eta herriko plazan. Arratsaldeko 6etan, berriz, ohizkoa den Mairuaren Agertaldia. Gaueko 10,30etan Gau Bela taldearekin dantzaldia eta 12,30etan Otxote Lehiaketa.

Igandean goizeko 9etan 2. mailako afizionatuentzako txirringulari lasterketari hasiera emango zaio. Goizeko 11etan Bergarako Orfeoak kantatutako Meza, eta ondoren, Jose Lizaso eta Imanol Lazkanoren bertso saioa. Arratsaldeko 8etan herriko plazan Greziako Dantza Taldearen emanaldia, gaueko 10etan Egan taldeak alaitutako dantzaldia eta jaiari bukaera emateko goizaldeko 2,30etan, Incansables taldearen kalejira.




Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41
BERGARA

LAZKANO

oinetakoak

BARRENKALE 15
BERGARA Tfnoa: 76 25 03



Marga
UBERA

BERGARA Tfnoa: 76 25 99

RIP, Cicatriz eta Lusty Men Txibiston

Ateak itxi arte

Duda barik 1984an zabaldu zutenetik San Juaneko dantzalekuarentzako aurtengoa urterik oparoenatarikoa izan da kontzertu emanaldiei dagokienean behintzat. *Hertzainak* taldearen zuzeneko diskoaren grabaketaz gain, ospe haundia eman diote Txibistori azkenaldian burutu diren *Heavy* eta *Trash* tankerako kontzertuek.

Larunbat gaueko diskoteka saioek, berriz, aurten ere ez dute ia inor erakarri eta horrek utzi du lur jota Bergarako dantzalekua.

Horregatik aspalditik daude Txibistoko jabeak kredituei aurre egin ezinda. Badaude, Txibisto dagoeneko salduta dagoela esaten dutenak: dantzalekua kaldereria bihurtuko dutela diotenak. Jabeek, oster, dena ukatzen dute.

Direnak direla Gabonak arte gutxienez zabalik irauongo du eta urrian zenbait kontzertu antolatuko dira. Urriaren 5erako bat (Kilometroak 91 dela eta egingo den Hamabostaldi Kulturalaren barruan), eta aste batzu geroago beste pare bat (*UFO*, *Mamas Boys* eta *Tankar* taldeen izenak entzun ditugu).

Dena den argi dagoena zera da, etorkizunean Txibistok jabez aldatuko duela. Jakiteko dago industria pabiloi bihurtuko den edota dantzaleku izaten jarraituko duen.



Txibiston denboraldiko azken kontzertua *RIP*, *Cicatriz* eta *Lusty Men* izango ditugu larunbatean.

Udan sartuak gaudenean eta Euskal Herriko bazter guztietan jaiak ditugunean, Txibisto dantzalekuak aparteko kontzertu batekin itxiko ditu ateak udaosterarte: *RIP*, *Cicatriz* eta *Lusty Men* ain zuzen ere.

RIP euskal punkaren aintzindaria kontsidera genezake. Inguru hauetan ospe izugarria izan duen taldea 80. hamarkada hasieran eman zen ezagutzera. Carlos, Porru, Txerra eta Yulek osatutako laukotea sarritan izan da Bergaran. 1988-89an, zortzi urte batera eman ondoren, taldea desegin zen. Harrezkero orain dela hila-bete batzu arte ez dugu arrasatear hauen arrastorik izan; aurtengo udaberrian, oster, *Arrasate Press* astekariaren ehungarren alea ospatzeko antolatutako jaialdian berriro jendaurrean ikusi genituen. Jarraitzaileen erantzunaz harrituta geratu ondoren, udan zenbait emanaldi eskeintzea

erabaki dute, lehenengoa larunbatean Txibiston emango dutena.

Cicatriz gara...!

RIP eta *Cicatriz* taldeek bide berdintsua jarraitu dutela esan genezake. Arrasatekoak bezala gasteiztarrak euskal Punk-rockaren adierazle aipagarrienetarikoak ditugu. Hauek ere bi disko plazaratu eta gero desagertu egin ziren. Hirugarren Iraupen Luzekoa grabatzera estudioan sartzekotan zirenean, Natxo abeslariak moto istripu grabea izan zuen. Bi urte inguru ixilean egon ondoren, Arturo Tirador bergarrak Londresen duen *Von's Recording*

estudioetan grabatu berri dute. Txibiston emango dutena berragerpenaren ondorengo hirugarren kontzertua izango da.

Lusty Men

Hiruretatik ezezagunena *Lusty Men* laukotea da. Hernanikoak hilabete batzu besterik ez daramatzate bidean eta disko bakar bat kaleratu dute. Egin egunkarian zine kritikak idazten dituen Mikel Insausti da laukotearen aho-tsa eta liderra. Beste lagun batekin batera sortu duen *Slam Records* zigilurako grabatu dute aurreneko diskoa eta Txibiston aurkeztuko digute.

LONBIDE
OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan.
Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

Jesus Aranzabal: Txirrindulari profesional ohi baten gogoetak

*Maxim's tabernako txoko izkutu batean eseri gara,
Jesus Aranzabalekin berriketan egiteko asmoz.*

*Txirrindulari izana. Zazpi urte eman zituen
profesionalen tropelean.*

*Gizon argia. Argia eta apala, jatorra. Berarekin
hizketan, Marino Lejarretaren izakera aparta etortzen
zaizu burura, auskalo zergaitik!*

*Tourra gori-gorian dagoela, Berrigarako
orrialdeetara ekarri dugu.*

Jesus Aranzabal Ojangu-
ren, Angiozarren jaió zen
1939ko abenduaren 25ean,
Gabon egunean. "Jarri, jarri
angiozartarra naizela. Ber-
gara industrialde bat besterik
ez da guretzat, lana egiteko
tokia".

12 urte zituela, Angio-
zarko Lasarte baserrian ema-
ten zituen ordu mordoska.
"Hango mutila txirrinduzale
amorratua zen, eta haretxek
sartu zidan zirrara gorpu-
tzean. Hor ibiltzen ginen, bi-
zikletak hartu eta Mondrau-
era joan-etorriak egiten.
Gero Bergaran hasi nintzen
lanean, eta egunero bizikle-
tan gora eta behera. Horrela,
horrela sortu zitzaidan zale-
tasuna".

Urte askotxo eman ditu
txirrindularitzaren munduan,
eta noski, oroitzapen ugari
gordetzen ditu bere barnean,

oroitzapen gazi-goxoak.
Denboraren poderioz, filo-
safia berezi batez gogoratzen
ditu egun haiek. "Beti saiatu
izan naiz pasatutako mo-
mentu onak gogoratu eta
txarrak ahazten; ez bait diot
zentzurik ikusten orduan bizi
izandako arazoak orain ber-
riz gogoratzean".

"Lehen naturalagoa"

Onartzen du, bai, gauzak
izugarri aldatu direla ordutik
hona. "Normala iruditzen
zait gauzak aldatzea, bizi-
modua bera ere aldatu egin
delako. Nik uste orduan txi-
rrindularitza naturalagoa
zela, sinpleagoa. Dena den,
arlotan hobekuntza ha-
undiak egon direla iruditzen
zait. Irabazien aldetik, adi-
bidez, ezin ukatu gora egin
dutela, asko gainera. Pres-



takuntza aldetik ere hobe-
kuntza asko somatzen ditut.
Lehen bakoitza bere erara
prestatzen zen, ondo edo
txarto ari ginen jakin gabe.
Gaur egun ez da hori gerta-
tzen. Janariak eta entrena-



mentuak ondo lotuta egoten
dira, atal horiek lantzen di-
tuzten espezialista ugari
daude, eta inolako zalantza
barik hori ona da kirolaria-
rentzat".

Jesus Aranzabal, erlojuja-
ren kontrako probetan ederto
moldatzeaz gain, errepide
lauetan sentitzen zen gustora.
"Erdi mailako aldapak ere
ondo igotzen nituen; baina
parean aldapa gogorak jar-
tzen zizkigutenean... ezin,
mutil, ezin igo!".

Galdetu Jesusi zein izan
zen txirrindularitzaren mun-
duan pasatako unerik goxoe-
na. "1965ean Frantzián pa-
satako urtea, dudarik gabe.
Hara joan aurretik txirrin-
dularitza lagatzeapentsatzen
ari nintzen. Baina hain gus-
tora sentitu nintzen Frantzi-
an... emaitza onak lortu ni-
tuen gainera, eta mundu ho-
netan jarraitzeko beharrezko
motibazioa berreskuratu nu-
en".

Gaur egun, Maxim's ta-
bernan egiten du lan, eta antza
denez gustora dabil bertan.
"Pozik nago. Hasieran ez



LARRAÑAGA AUTOGIDARIEN ESKOLA

Arte kale 22

Tfnoa: 76 16 63

BERGARA



din xamarrekoak ziren. Anquetil ezberdina, baina hura ez txapela kentzeko modukoa! Ez dakit, ez da erraza. Beharbada Mercx aukeratu-ko nuke. Hurazentxirringul-aria, hura. Itzulia, etapa mordo, mendiko sailkapena... denak eramaten zituen. Bigarren mailako probak korritza eta ortzen bazen ere, beti garaipenaren bila ir- tzen zen. Beti. Anquetil eta Hinault beharbada selekti- boagoak ziren, urtean 10 ka- rrera aukeratu eta horiek i- rabazten zituzten. Mercx-ek denak, den-denak".

Gaur egungo tropelean, Gregory Lemond amerikarra ikusten du jaun eta jabe. "Tourra irabazteko bizi da; eta Tourrera heldu, eta ira- bazi egiten du! Gaitasun a- parta izateaz gain, tropeleko gizonik listoen delat uste dut. Ederki aprobetxatzen ditu bere aukerak".

Urteak, ordea, ez dira al- ferrik pasatzen, eta Jesusek, laister belaunaldi berrietako gizonen ordua helduko dela esaten du. "Bugno, Indurain, Alcalá, Breukink... gazteak dira, indartsuak eta oso kon- pletuak gainera. Bai. Laister helduko da hauen ordua. Aurten ez bada, datorren denboraldian eurak izango ditugu tropeleko erregeak!".

Eta bukatzeko, Jesus, e- maiguzu zure pronostikoa. Nork irabaziko du Tourra? «Hori galdera zaila! nere favoritoa Lemond da. Bugno eta Delgadok ez dute iraba- ziko, hirugarrenetik gora geratuko dira. Marinok, bes- talde, ez du aurrean amaitu- ko, aurten Vuelta eta Giroa disputatu ditu eta Tourrera ez da indarrean ailegatu. Beharbada etapa bat iraba- ziko du, besterik ez".

Jesus Aranzabal, angio- zartarra. Elkarriketa ama- itutzat eman dugunean hantxe gelditu da, bere tabernako mostradorean, txirringulari- tzari buruz gurekin makina- txo bat gogoeta konpartitu eta gero.

neukan idearik ere, baina ez zegoen beste erremediorik, eta ikasi egin behar. Denbo- rarekin gusto hartu diot ta- bernari, eta ez naiz damutzen orduan hartutako erabaki- az".

"Tourra-Tourra da!"

Gaur egun modan daude Lemond, edota Delgado bezalako txirringulariak, urte osoa Frantziako Tourrari be- gira ematen dutenak. "Hori patrozinadoreen interesaga- tik gertatzen da. Tourra Tou- rra da, eta etxeak tourra ira- bazi nahi badu txirringulari- ak ez dauka beste erremedi- orik, hura prestatu behar du. Neri ez zait gaizki iruditzen. Dena dela, arriskutsua ere bada. Momentu klabea heldu eta lesio bat, edo gaixotasun bat, edo antzeko zerbait ger- tatuz gero jai daukate! Den- boraldi guztia pikutara! Bestela, helburu hori eduki eta kunplutuz gero, ondo i- kusten dut gauzak horrela e- gitea. Azken finean, Frantzi- ako tourra irabazteak beste edozein lorpen konpensat- zen duelako, bai horixe!".

Ocañaren laguna

Lagun ugari utzi zituen Jesusek orduko tropelean. Lagun ugari eta oso onak. "Gure arteko harremanak bikainak ziren. Oraindik gaur sarritan elkartzen naiz as- paldiko lagun haiekin. Nor- bait aipatzekotan, ez dakit, beharbada Luis Ocaña aipa- tuko nuke. BIC taldean ezagu- tu genuen elkar, eta ederto konpondu izan gara beti".

Anquetil, Mercx eta Hi- nault. Zein aukeratu zenu- ke, Jesus? "A ze hirukotea. 'Fuera de serie' ak izan dira. Mercx eta Hinault estilo ber-

16 urte pelotoian

Jesus Aranzabalek 1957- an ekin zion afizionatu mailan korritzeari. Zazpi urte eman zituen bertan. Garai haietan Gi- puzkoako Fondo Txapelketa irabazi zuen bi aldiz. Baita er- lojuaren kontra jokatzeko den Gervais Memoriala, eta Bida- soako Itzulia ere.

1964an Independiente mailara pasatu zen (afizionatu zein profesionalekin korritzeko aukera ematen zuen maila). Urte txarra izan zuen, ordea, eta txirringularitza bertanbe- hera uztekoan egon zen.

1965ean Frantziara joan zen, urtebete lagun baten e- txean eman zuelarik. Han ber- reskuratu zuen Jesusek gal- dutako motibazioa, urte berean 13 proba irabazi eta gero.

1966an, Fagor taldearekin

profesionaletan, debutatu zu- en. Lau denboraldi eman zituen ekipo honetan, eta 69an BIC taldera joan zen, 1972an erre- tiratu zen arte.

Tourra 3 aldiz korritu zuen, 1966, 67 eta 73an eta hiruretan amaitu zuen; Vuelta, berriz, 6 bider: 1972an Gasteizetik Do- nostiara jokatu zen azkeneko etapan garaipena lortu zuen Anoetako belodromoan.

Profesionaletan eskuratu- tako lehenengo garaipena Vu- elta a Andalucía izan zen. Gero, Vuelta a los Puertos-en gara- ipena, eta Euskal Herriko It- zulia bigarren postua ere es- kuratu zuen.

Horrez gain, hainbat etapa irabazi zituen bai Euskal Herri- ko Itzulia, Espainiako Vuel- tan zein Cataluña-ko Voltan.

BOLINTXO

**KIROLA EGITEKO
BEHAR DEN
GUZTIA.**

IBARGARAI 10,
Tfnoa: 76 38 32
BERGARA

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA



**BRIKOLAIA
AUTOMOZIOA**

Turismoak, kamioiak, etab.

Bolu, Tfnoa: 764404 BERGARA

MAKAILO

BAKALAU ETXEA

KAZUELAK

GERTATZEZ DITUGU

IBARGARAI 15



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k**

**Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI**

Mugica

GOZOTEGIA

**ARTEKALE 3 Tfnoa: 76 10 34
BERGARA**

OILAGORRA

TABERNA

Barrenkale 21 BERGARA

Nora zoaz oporretan?



Ane Ansola

21urte


Aurten etxean ikasten geratu beharko naiz.



Tere Azkarate

33 urte


Orioko kanpinera joateko asmoa daukagu abuztu osorako eguraldi ona egiten badu eta haurrak ez badira aspertzen.



Jose Manuel Alferez

17 urte


Opor hauetan Cordobara joango naiz nire gurasoekin. Han pasatuko dut abuztu osoa.



Fernando Lasa

62 urte

Hamabost bat egun Hondarribira eta gero beste hamabost Jacara joateko asmoa daukagu.



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 48 51

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



Amets Izkutuak

Gaurko honetan bizitzan zehar izaten ditugun ametsen buruz gogoeta labur bat egin dezagun. Agian arraro samarra irudituko zaizue aukeratu dudana gaia, baina guk denok uste duguna baino garrantzia handiagoa dute ametsak eta nahiek. Historian zehar egin den guztia ez al zen hasiera batetan ideia, gogo edo amets bat izan (hots, gizona itsasoratzea, hiriak eraikitzea, munduko mendi tontor handienak igotzea...)?

Jaiotzen geranetik gizarteak kateak ipintzen dizkigu. Haurrak geranean bizitzan zehar hainbat eta hainbat gauza egin behar ditugunaren ziurtasuna izaten dugu, baina zoritxarrez, denbora aurrera doan heinean, eguneroko arazoak amets guzti hauek suntsitu egiten dituzte. Daramagun bizitzan akomodatzeko gara. Gure amets bakarrak lanpostu bat aurkitzea, etxebizitza propioa izatea... izango dira. Ez dugu bizitzaz gehiago espero, geure burua gizartearen zerbitzuan uzten dugu eta ez zaigu axola, ez dugu gehiago behar. Honela, zoriontsuak izango gara beste norbait aberasteko lantokian sartzen ditugun zortzi orduak sartuaz, egunero-egunero eta gure bizitza guzti honetan zehar, edo familia izan eta hauek ere gure bide berberetik bideratuaz.

Bada txinatar esaera bat honela dioena: "itsasontziak seguru daude portuan". bai egia hutsa da, baina itsasontziak ez daude eginak portuan egoteko, itsasoak zeharkatu eta hauetan barrena ibiltzeko baizik.

Beraz, zergaitik utzi gizarteak baloratu dezan guk balio duguna? gu den-denok artelanak bezalakoak gara, orijinalak, bakarrak. Ez dago inon zu bezalako beste gizakirik. Denok ditugu gure kualitate bereziak. Atera itzazu zure kualitate berezi horiek kanpora eta garatu itzazu zure amets izkutu hoietarantz bideratuaz.

Ainhoa Lete



Aurrerakuntza


Urte gutxitan bizi garen gizarte honek sekulako eraldaketa jasan du. Orokorrean gizakien arteko hartu-emanari uko egin zaio eta lehia nagusitu zaigu, era berean kolektibo batetan parte hartzea inposatu zaigularik. Arteak ere aldakuntza hori sufritu du, Paris zaharretik New York-en lantzen den forma geometriko eta hotzetera pasatu gara. Hori gutxi bada ere telebistako iragarkiak gure izaera estereotipatzen saiatzen dira, gorputz lirainak, gizon interesgarriak, emakume irribartsuak... Noizean behin, hor goian ditugun horiek, iragarki horietako batetan gizarte hau hobetzeko dituzten proiektuak azaltzen dizkigute, enpresa lehiakorra eta eraberritzailea sortzea, zerbitzuen hobekuntza...

Aurrerakuntzak, edonon agertzen zaigun izaki horrek, erabat aldatu du paisaia. Zelai berdeen lekuan lantegi erosoak jarri dizkigu, pago eta haritzen ordean elektroposteak, nolabait geroz eta urriagoak diren txoriñoak haien hari luzeetan pausa daitezten. Bidetxurrak ere autobia bihurtu dituela eta batek bihotzoneko izakia baino itzaletik sortutako monstroaren bat ez ote den pentsatzen du.

Naturak bizia eman digunez gero hura zaintzea litzateke aurrerakuntzaren oinarrietako bat eta bitartean, itzaletik sortutako monstro hori kalean gora datorkigunean etxeko ate eta leihoak itxita sukaldeko mahai azpian beldurrak jota egongo gara, noiz aldegingo zain.

Mikeldi Bengoa

AE ELKORO ANTENAK



. TB Satellite bidez

. Telebanaketa

ARRASATE

Tfnoa: 79 18 86

Pepelu

Ileapaindegia


Zurradero 2, Behea
Tfnoa: 76 43 07

ANTIA HARATEGIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri
bildots, untxi
baserriko oilaskoak

Matxiategi Tfnoa: 76 15 09 BERGARA



29. Aurten uraren errezibua ikaragari igo da. Zein izan da horren arrazoia?

Etxebizitza baten hiruhilabeteko gutxieneko ur errezibua aztertuz, hauek ditugu 1990etik 1991ra izandako igoerak kontzeptu bakoitzean.

| | 1990 | 1991 | Igoera % |
|-----------------------------------|------|------|----------|
| - Ura | 1300 | 1420 | 9,2 |
| - Zaborra | 777 | 843 | 8,5 |
| - Estolderia (Alkantariilatua) | 429 | 710 | 65,5 |
| - Mantenimenduak | 99 | 107 | 8,1 |
| - BEZ (IVA) | 90 | 98 | 8,9 |
| | 2695 | 3178 | 17,9 |

Igoera nabarmenena "estolderia" kontzeptuan izan da eta honen arrazoia "Confederación Hidrografica del Norte de España" erakundeak Udalari jarritako kanon berria ordaindu behar izatea da. Kanon hori, kuadroan ikus daitekeenez ikaragari igo da.

Gainontzeko kontzeptuetan herritarrei egin zaien igoera kostuaren igoera izan da ez gutxiago ez gehiago.

Aipatutakoa izan da, beraz, uraren errezibua aurten % 18 igotzeko arrazoia.

(Informazioa: Udaletxeko Kontuhartzaitza zerbitzua)

30. Zer baldintza bete behar da babes ofizialeko etxea lortzeko? Bergaran non daude? Non egingo dira berriak?

Babes ofizialeko etxebizitzak eskatzeko 3 eratako baldintzak bete behar dira:

1. Familiaren diru-sarrereri buruzkoa. Familiaren urteko diru-sarrerak muga batzuren barruan egon behar dute. Muga horiek lanbidearteko gutxieneko soldata, "salario minimo interprofesional" deitzen denaren arabera jartzen da.

2. Familiak duen edo ez duen etxebizitzari buruzkoa. Nahikoa da hauetako edozein baldintza betetzea: norbere etxerik edo errentan duenik edo erabiltzen duenik ez izatea, familia kontutan hartuta etxea txikiegia izatea,

egoera txarrean dagoen etxe batean bizitzea, etab.

3. Epe batzuren barruan etxebizitza eskatzen den herrian enpadronatuta egotea edo bertan izatea ohizko lana.

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero udaletxean emango dizute.

Bergaran momentu honetan ez dago babes ofizialeko etxebizitarik baina laster izan liteke, Toki Eder aldean egiteko asmoa dago eta.

(Informazioa: Udaleko Gizarte Laguntza Zerbitzuak)

31. Polizia Munizipal ikasketarik badago?

Bai, badaude udaltzain ikasketak ere. Kurtso bat irauten dute, gutxi gorabera eta Iruñean, Madrilen eta Bartzelonan, ikas daiteke. Kultura orokorra, legeak, udalgintza, hezkuntza fisikoa, babes pertsonala, etab. ikasten dira eta horretaz gain espezializazioak ere badaude: gazte delikuentzia, marrazketa, argazkilaritza, istripu ikerketa, ingurugiroa, etab.

Kabia
Altzariak
Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

iRUDI
Erlojutegia
Bitxitegia
San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65

BERROYA, E. A.
INPRENTA
OFFSET - TIPOGRAFIA
ENKUADERNAZIOA
Komenio 2
Tfnoa: 76 00 01 BERGARA

□ **Aste honetako BONOFOTOA**

Teresa Alberdi osintxuarrari ondo baino hobeto etorri zaio bere auzoko baserriak ezagutzea. Joan den asteko bonofotoaren erantzun zuzena Osintxuko Laspiur Gainekoa (Laspiur) baserria genuen eta Teresak irabazi du 10.000 pezetako saria. Aurrekoetan bezala, erantzun ugari jaso genuen eta abuztuan oporrak hartuko ditugunez irailerarte bonofotoari ere atsedentxo bat ematea erabaki dugu. Bestalde, oporretako argazki eta postalen lehiaketarako epea astebete luzatu dugu eta, beraz, irailaren 9ra arte jasotzen ditugun guztiexkhiru sari eder irabazteko aukera izango dute. Badakizue, postaltxo bat bidali, argazki majoak atera... eta ONDO PASA!



□ **Everestera**

Abuztuaren 2an aterako da *Azpeitia Everest 91* espedizioa Everest aldera. Espedizio horretan doan Amaia Aranzabal bergararrarekin batera, bere ahizpa Arantza, Aitor anaia eta Mirari Lamariano laguna joango dira. Hiru hauek kanpamentu basean izango dira 10-15 egunez eta gero bueltatu egingo dira. Espedizioak aldiz, gailurra lortu eta azaro aldera bueltatzeko asmoa dauka. Guzti horren berri oporretatik bueltan...

□ **Europa Kantat**

Aritzeta Abesbatza Gasteizen ospatzen ari den Europa Kantat Jaialdian parte hartzen ari da. Jaialdi honetan Europa eta Japonetik etorritako koruek musikagile inportanteenen piezak lantzen dituzte elkarrekin eta zuzendari ospetsuenen laguntzaz. Aldi berean, Aritzeta koru *Judenchor Reimbeck* koru alemana gonbidatu dute igandean Santa Marinako Meza Nagusian kanta dezan.




Zertan
dihardute
ba?

ALBERTO ANSOLA



Txikitan Osintxuko Laspiur baserrian bizi izan zen 48 urteko plaentziar jeltzalea Arabako Diputatu Nagusi izendatu dute aste honetan. Aurreko legealdian Hazienda Saileko buru izan genuen Arabako Diputazioan.

JOSE MARI LARRAÑAGA



Izatez elgoibartarra den 45 urteko bergarar hau Lanbide Heziketa Institutuko zuzendari berria dugu uztaitetik aurrera. Jose Mari Teknologia eta Praktiketako klaseak ematen urte mordoak daramatza eta aurretik Eskola Politeknikoan ere ibilia da.

FS
oto istema

Tfnua: 76 00 50 **ARGAZKIAK ORDUBETEAN** Tfnua: 76 00 50

ETXAGI

Afariak
Bazkariak
Gosariak
Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua

JATETXEA

Mahasterreka 8, Tfnua: 76 53 12

Hau dok barreguria

Ba ei zien auzo baten bi gizon kedarrria baiño siku-
auak. Harek ez emutearren
gorantziaik pe ez i eben
emungo.

Bixetako batek ortuko
alanbradurixia konpontzen
ei ziharduan semiakin ba-
tera eta zera esan ei zotsan
honi:

- Joan hari Patxina eta
eskatuixok mailuka bat, il-
tza batzuk sartzeko biha
dotela eta.

Laster bueltau zan mu-
tikuoi Patxik mailukia u-
katu ein zotsala esanaz, il-
tzak sartzen mailatu egin
zeikela eta.

Orduan esan zotsan se-
miak:

- Konturatzen haiz ze-
lako sikua dan Patxi-ximur
hori? Horrek eleukek be-
karraik pe emungo. HOLA-
kuak zenbat eta urrinago
hobe. Baiña tira, horri kaso
egin barik joan hari etxera
eta ekarrik kutxan gordeta
daukagun mailukia.

Urtain bere sasoirik o-

nenian zeuan eta jentia etze-
ukan beste konbestaziñoik.
Tabernan alkartzen die bi
plaentziar eta...

- Nor jok pa gaur kontra-
rixua?

- Aleman bat.

- Alemana bai, baiña ori-
zontalekua ala bestekua?

- Etxakixat zein alemania
klasetakua da, baiña orizantal
gaur gabian gelditukok.

Eta halaxe izan zan. Ur-
tainek bere kontrarixio ale-
mana "orizantal" laga eban.

Kapelaneko panaderixan
bezero bat sartu zan eta uga-
zabai esan zotsan:

- Zu, Kapela, atzo eruan
neban ogixak kukaraxia
zeukan.


Eta Kapelak atzeko hotzik
barik kontestau zotsan:

- A, eta nik ogibittartekua
kobrau biharrian ogixa
bakarrik kobrau. Ni naiz ni
etxekalte.

J. M. Elexpuru

Baseriko emakumeen bizimodua (2)

Hemengoixan, hemen
goiko andrak, Domeka
goizian, Sapatuan gorde
bai, garixa ero, artua, ero,
garixa jeneralian, garixa
dezente izete zan da, eta
zangetan, zangia baakizu
zer dan? Hola ura juteko
halaki zangen baten, gorde, eta bi ero hiru kilo hartu, ta. Nere
aiztiak errotia eukan, da panaderixia, haraxe diru puxkat hartzea.
Gizonen ixilik e, ez azukar puxkat... zeoze zeoze eruteko.
Haura ixilik, aurreko egunian etarata, meza nausittara datozenian,
hartu albuan eta ekarteko.



Orduko emakumiak emote-ben, nik oiñ daukaten beste urte
berrogetalau urtekin bai, gitxiaokin. Gero agiñik pez, buruko
emendaixa jantzitta, erropa luze luze, gona haundi batzuk,
beste, txanbria ero esate jakon, beste amantal haundi bat.
Bueno, zaarra emon ez ba? Hoixe. Zaarra, hauraxe zaarra. Gero
alimentua bapez. Esnia ta, artua ta, zera, baiña batzutan beste
gauza bat jateko gogua be igual egon eitten da. Falta haura dana.

Saldia, saldiai gaiña kendu ta gizonak hegaztixa. Ume bat
ein leikek eta eztakit ze ein leikek, eta, hartuik bera, lan earra
dok haura, umia eukitzia zer dan eztaki. Ezta figuraik pe,
buenoo, gizonak ezta pentsau be haura padeziuta itten zanik pe,
bueno. Hill eitte zien asko gaiñera, hill. Halaxe bizi izen zan ba
orduan jentia.

Urte bigarrenko barrixa, haura hazten danian beste bat
barrixa, hurrenguan beste bat barrixa. Holaxe mundua. Zibili-
zaziñoik pez bia danik eta.

Gizonak ez zebe eitten orduan ezebe etxeko jiran, da
gaiñera bestiak eitten dabena apreziu ez. Haura berez eitten
zalakuen; holaxe bizi izan zan jentia. Gaur basarrixan "don"
dare danak, "don".

Mertzedes Agirre, 1899an Laudatzen
"Bergarako Euskera" liburutik aterata



ARRASATEARRA

Gure berezitasuna bazkariak. **Taberna**
Eguneko menua daukagu.

Zubiaurre 22,

Tfnoa: 76 20 19

BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER "
PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ZARZUÑO

San
juan



BERGARA

Uztailaren 24etik abuztuaren
24era itxita egongo da.

Submarinismoa: udarako aukera freskoa

Normalean egiten edo egiteko aukerarik ez dugun zenbait kirol praktikatzeko garai aproposa da uda. Esate baterako Bergaran badira ur azpian sartu eta urazpiko arrantza edota submarinismoa egiten duten zenbait gazte.

Bata ala bestea aukeratzeko orduan izugarrizko alde dago prezioei dagokienean: arrantzan egiteko ez da submarinismoa egiteko behar beste tresna behar eta, beraz, askoz ere merkeagoa da. Horrez gain, submarinismoa egin ahal izateko kostaldeko herrietan antolatzen diren ikastaro batzutura aurkeztu beharra dago lehenbizi; hori bai, bihotza eta belarria kondizio onetan izatea ezinbestekoa duzue, presio handia jasaten bait da ur azpian. Behin karneta lortuta eta Mutrikun, Lekeitio edota Donostian diren elkarteren bateko bazkidea izanez gero, ekipoak alokatzeko orduan beharpenak lor daitezke.

Jokin Mujika bergararra Mutrikuko Elkarteko sozioa dugu eta ur azpiko kontuetan urte mordoxka daramatza. Bere esanetan, "selektiboa izaten den ur azpiko arrantza gogorragoa da, oxigeno botelarik ez delako erabiltzen. Goian oxigenoa hartu eta beharuntz joaten zara, gorputzak asko sufritzen du. Sub-



marinismoan aldiz, beti duzu arnasa, beti heltzen zaizu oxigenoa". Boteila erabiltzeko metro dexente beherago diren haitzetan, zuloetan, landaretzan... etab. luze baten lasaitasun osoz fijatze

aukera paregabea ematen du, "mota guztietako arrainak ikusten dira: iltze-arraiak, pulpoak, ballestak, itsaskabrak... etab. baina gure mugimenduak mantsoagoak dira eta arrainak ez dira bel-

durtzen fusilik ez duzula igartzen dutelako, eurekin jolasteko aukera duzu". Itsasoak ere zeresanik badauka, bare-bare egotea izaten da aproposena, haizeak jotzen duenean korronteak sortzen baitira uretan eta ez da ezer ikusten.

Itsasoak ere ez dira berdinak, "Kantauri Itsasoa nahiko kontaminatuta dago. Asturias eta Galizia aldera joan ezkerre, itsasoa askoz ere garbiagoa dago eta arrasterruak ez dute hemen beste arrastratzen... eta arrainak errezago hartzen dituzu. Mediterraneo bestalde, kutsatuagoa egon arren, argitasun eta bisibildade aldetik hobeto dago, itsasoa bare egoten baita, boteilakin submarinismoa egiteko fenomeno dago eta 22 metrora lasai ibil daiteke bertan. Islas Medesen adibidez orain 5 bat urte arrantzan egitea debekatu zuten eta orain arraultzak egosita eskuetan eraman eta meruak etortzen dira eskura jatera».

Urkulun edo Landan berriz ez dago submarinismoa egiterik ezer ikusten ez delako. Beraz, kirol erakargarri hau modu egokienean egiteko Neptunoren erreinuan urperatu beharra duzue, itsasaren lagun... eta itsasoaren menpe.

Prezioen gorabeherak

✓ Oinarrizko ekipoak 40.000 pta. inguru balio du.

✓ Arrantzan egiteko behar diren gehiagarriak 20.000 pta. inguru gehiago balio dute eta submarinismokoak 35.000.

✓ Denda espezializatu- etara jo eta kontutan hartu ekipoak alokatzeko posibilitatea duzuela.

Toki aproposenak

✓ Euskadiko kostalde osoan zehar egiten bada ere, beharbada Ondarru eta Bermeoren arteko tartea duzue tokirik aproposena.

✓ Beti ere kostaldetik hurbil ibiltzea komeni da.

✓ Badaezpada hobe izaten da beste lagun batekin joatea.

ELKAR

Fotokopiak
Enkuadernazioa
Jendearentzako faxa
Plastifikazioa
Planoen kopiak.

Harruriaga 1, Behea

Tfnoa: 76 58 16

BERGARA



Jatetxea

AURREZ ESKATUTAKO
BAZKARI ETA AFARIAK

Angiozar Tfnoa: 76 21 21



Aurreko asteko gai berarekin gatoz oraingoan ere: jaietako pregoiarekin. Hartan ez genuen aipatu eta esan beharra dago Pazkua bezperan, lanrubatean, izaten zela ikuskizun hau.

Zeintzu talde izango ziren, etab. antolatzaileek erabakitzen zuten beste herri batzutakoak ikusiaz. Gero, arropak ere, aurrekoan esan bezala, alkitatua.

Era horretan, ia kilometro bateko luzera zuen komitiba osatuaz, kalejiran, joaten ziren ijito-ijitanak, mikeleteak, dantzariak, jostunak, etab. luze bat. Komitibak egiten zuen ibilbidea honako hau izaten zen;

Sagarpe-tik irten eta Gasparrenetik bueltan, Barrenkaletik zehar Plazara, handik San Pedro kaletik Artekale, Harruriaga, Barrenkale eta berriz Plazara.

Kaleak libratzeko, Donostiatik ekartzen omen zituzten udaltzainak hemen ez zirelako nahikoa egoten.

Azkenik, esan dezagun nortzuk diren erretratuan agertzen zaizkigun jaun bibotedun serio hauek.

Ezkerretik eskumara: Jose Gauna, Iñaki Agirrezabal, Anjel Lazkano, Laurentxi Lazpiur, Jabier Azkarate eta Lorentzo Laskurain.

Estepan Plazaola

Argazkia: Jose Iturbe

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ERREKONDE

Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5 , Tfnoa: 76 25 69
BERGARA

Oharra:

Orrialde honetan iragarkiak ez dira ordaintzen.



ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen dut Martokuan. 761460
- Pisua salgai Koldo Elizalde 20an. Deitu gaueko 20etatik aurrera 764252
- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823.
- Pisua alkilatzen da Bolun. Tfnoa: 763797.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserri bat hartuko genuke alokairuan. Tfnoa: 763431.
- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735.

LANA

- Neska euskaldun bat behar da etxeko lanetarako. Mesedez fundamentoduna. 760180 Tfno.a.

DENETARIK

- Mutiko baten txaketa urdin bat, (10 tailakoa), aurkitu genuen, aurreko zapatuan, hilak 15, Irizar-ko Bodegoiaren inguruan. Deitu 761781 tfno.ra.
- Funda azuldun betaurreko graduatuak aurkitu dira Ariznoa kalean. Deitu: 761536

SALDU-EROSI

- 28 urteko pinudia salgai. Terreno eta guzti. 76-1201.
- Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 862071era.
- Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 908171883 (Kotxekoa)
- Karrerako bizikleta polita eta arina salgai. Ez da garestia. 763269.
- *Reflecta Diamator AF* diapositiba proiektorea salgai. 762230 gaueko 9etatik aurrera.

• Hiru urte dituen Mobylette bat salgai. Prezio ona. 763276.

• 7 pertsonarentzako al-godoizko kanping bat salgai. Prezioa 6.000 pzata. 761634 Arantzagatik galdetu.

• Vespa 200a salgai, egoera onean. Prezioa 180.000 pzata. Deitu 7616-39 tfno.ra.

Hildakoak

Agurtzane Igarza Igarza
21 urte, uztailak 14.

AGURTZANE IGARZA IGARZA

Bihotzean zerbait daukat
esaten ez dakidana
mintzatzen xamurra
ahozkatzen erraza

ADISKIDETASUNA



Agur bihotz,
ikusi arte.

TOKI-EDER

Taberna

**Pintxoak eta
eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 765184 BERGARA


AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

GIARTZU



GIMNASIOA

- ✓ Muskulazioa eta kulturismoa
- ✓ Mantenu gimnasia
- ✓ Giartzu dermoestetika
- ✓ Estetika gela
- ✓ E.K.I. (IVEF)rako sarrera prestakuntza.

Boni Laskurain 3, etxabea

BERGARA

Tfnoa: 76 35 71

Beherapen handiak

BIZIKLETA modelo guztietan
lokala berritzeagatik



AUKERAKO PREZIOAK
BRUNET MERKATALDENDAN

UZTAILEAN

STOCK-A
AGORTU
ARTE

Zatoz ikustera!

Ozaeta, 11-13
Tfnoa: 76 31 52